

2006ko AZAROaren 20ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta seiko azaroaren hogeian goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- 2007 URTERAKO ZERGA ETA TASEN ALDAKETA

ZABOR ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK ETXEZ ETXE BILTZEAGATIKO TASA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2004 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

2007 urteko Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe biltzeko zerbitzuaren kostuak aztertuz gero, defizitariora dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

Etxebizitzak habitatuak eta hutsak- Hiruhilabetean	14,00,- €
Komertzioak - Hiruhilabetean	24,00,- €
Industriak - Hiruhilabetean	50,00,- €

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik

geratzen denik, zerbitzu hori defizitarioa izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

PROPOSAMENA	2006	SARRERAK
Zaborrak – Etxeak – 318 Errezibo	14,00 €/hiruhilabetean	17.808,00
Zaborrak – Komertzioak – 11 Erre	24,00 €/hiruhilabetean	1.056,00
Zaborrak – Industr – -- Errezibo	50,00 €/hiruhilabetean	----
GUZTIRA		18.864,00

AURRIKUSPENAK	URTEA	SARRERAK	IRTEERAK	DIFERENTZIA
ZABORRAK	2007	18.864,00		
GMSM Zabor Bilketa			12.536,62	
Tolosaldeko Mankomunitatea			20.334,76	
GUZTIRA		18.864,00	32.871,38	- 14.007,38

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

UDAL UR HORNIDURA TASA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2004 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

2006 urteko Udal Ur Horniduraren kostuak aztertuz gero, defizitarioa dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Udal Ur Hornidura Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

UR ERREZIBOAK

ETXEAK

Hiruhilabetea 36 m³ x 0,23 €/m³
36 m³tik gora – 0,36 €/m³

KOMERTZIOAK

Hiruhilabetea 45 m³ x 0,36 €/m³
45 m³tik gora – 0,48 €/m³

INDUSTRIAK

Hiruhilabetea 45 m³ x 0,455 €/m³
45 m³tik gora – 0,60€/m³

INFRAESTRUKTURA KANONA

Hiruhilabetea 7,00 € erreziboko

KONTAGAILUEN MANTENIMENDUA

Hiruhilabetea 1,35 € erreziboko

SAREARI LOTUNEA

Lotune Eskubidea: 50,00 €

Berlotune Eskubidea: 100,00 €

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Udal Ur Hornidura zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu horrek defizitarioak izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA

KONTZEPTUA		GUZTIRA
Ura – Etxeak	261 kontagailu x 36 m ³ x 0,23 x 4	8.644,32
Komertzioak	18 kontagailu x 45 x 0,36 x 4	1.166,40
Industriak	.. kontagailu x 45 x 0,455 x 4	-----
Infraestruturaren Kanona	279 kontagailu x 7,00 x 4	7.812,00
Kontagailuen Kanona	274 kontagailu x 1,35 x 4	1.506,60
SARRERAK GUZTIRA		19.129,32
GASTUEN AURRIKUSPENA		
Gipuzkoako Urak	Ura Kontsumoa – 30.000 m ³ x 0,455 €/m ³	18.200,00
	Infraestruturaren Kanona	6.839,38
	Kalitate Kontrola	500,00
	Bestelako Mantenimenduak	2.000,00
GASTUAK GUZTIRA		27.539,38
DIFERENTZIA		- 8.410,06

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN tramo eta tarifak aldatzea. - PROPOSAMENA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek onartuak ditu, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergatik kobratu behar ziren tasak.

2004 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

Abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikulua, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak berriak ezarri ditu, 2007 urtetik aurrera aplikatu behar direnak.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak honela geldituko lirateke:

TRAMOAK ETA TARIFAK – 3,7% IPC ERANTSITA

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	TARIFAK
TURISMOAK	9 ZF. Baino gutxiago	30,00
	9tik 11,99 ZF. Bitarte	58,65
	12tik 13,99 ZF. Bitarte	97,75
	14tik 15,99 ZF. Bitarte	136,85
	16tik 19,99 ZF. Bitarte	176,60
	20 ZF. Gorakoak	215,05
AUTOBUSAK	21 eserlekutik beherakoak	135,50
	21etik 50 bitartekoak	192,90
	50etik gorakoak	242,25
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik beher	68,75
	1000tik 2999 bitartekoak	135,50
	2999tik 9999 bitartekoak	192,90
	9999tik gorakoak	242,25
TRAKTOREAK	16 ZF. Beherakoak	28,75
	16tik 25 bitartekoak	45,15
	25tik gorakoak	135,50
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA.	750tik 1000 bitartekoak	28,75
	1000tik 2999 bitartekoak	45,15
	2999tik gorakoak	135,50
ZIKLOMOTOREAK		7,20
MOTOZIKLETAK	125 c.c. bitartekoak	7,20
	125tik 250 bitartekoak	12,35
	250tik 500 bitartekoak	24,70
	500tik 1000 bitartekoak	49,25
	1000tik gorakoak	98,50

Ibilgailuen Gainerako Zergaren Tarifa Aldaketa, aho batez onartua izan da.

3.- AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA 2/2006

KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2/2006 ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Lizartzako Udal honen 2006ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 27.518,16 €-tako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailatza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

4.- ZERGA INFORMAZIOA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA, FISKALITATERAKO ETA FINANTZAKETARAKO DEPARTAMENTUAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEAN

Alkate jaunak, hitza harturik, zera dio:

Gizarte Laguntzaileak luzatutako txostenaren arabera, Zerga Informazioa emateko Lankidetzaren Hitzarmena, Fiskalitaterako eta Finantzaketarako Departamentua eta Lizartzako Udalaren artean sinatzeko proposamena luzatu da. Honen helburua, Lizartzako Gizarte Ongizateko laguntza eskatzaileen informazio fiskala lortzea da. Hitzarmenak literalki, honela dio:

Lizartzan,

HAUEK ELKARTU DIRA

Alde batetik, Juan Jose Mujika Aginagalde jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzaketarako foru diputatua, foru diputatuen izendapenari buruzko 34/2003 foru dekretuaren bidez izendatua.

Bestetik, Joseba Egibar Artola jauna, Lizartzako Udaleko Alkate jauna, 2003ko ekainaren 14ko bilkuran izendatua.

Hitzarmen hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa aitortzen die elkarri, eta horri dagokionez zera

ADIERAZTEN DUTE

I.- Fiskalitaterako eta Finantzaketarako Departamentuak bere eskumenak gauzatzean zergapekoengandik lortu ohi duen zerga informazioa, haiek legezko betebeharrak konpliztean emandakoa, Administrazio Publikoek eskatu ohi diote beren zeregin eta eskumenak garatzeko.

II.- Zerga datuen erabilpena eta lagapena muga jakin batzuei lotuta daude, hain zuzen, datu pertsonalak babesteko legeriak, Zergen Foru Arau Orokorrak eta

zerga informazioaren lagapena arautzeko emandako gainerakoak jarritako mugei.

III.- Zerga araudiak zergapekoei aitortzen die eskubidea dutela, betiere legeak ezarritako baldintzetan, zerga administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratutako datu, txostena eta aurrekariak isilpekoak izan daitezzen, beste inori utzi edo komunikatzea debekatuz, legean aurreikusitako kasuetan salbu, zergapekoaren baimenarekin edo baimenik gabe.

Hortaz, zerga informazioa isilpean gordetzea zergapekoen eskubidea da, eta aitortzen zaie haien intimitatea zaintze aldera. Fiskalitateko eta Finantzarako Departamentuak zaindu behar du eskubide hori bere esku dituen lege baliabide eta baliabide materiale guztiak erabilita.

IV.- Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunezko helburuen artean honako hauek daude: erakundeen arteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta Administrazioaren modernizazioa, razionalizazioa eta hobekuntza bultzatzea, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra lortzeko eta herritarrari zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, besteak beste, administrazio lanak sinplifikatuz edo tramite batzuk errazago bihurtuz. Betiere pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezko bermeak finkatuko direlarik.

V.- Lizartzako Udalak zerga datu jakin batzuen lagapena eskatu du, hain justu, bere zereginak bete eta bere eskumenak gauzatu ahal izateko. Hori horrela, kontuan izanda elkarri laguntzea Administrazio Publikoen arteko harremanen printzipio gidaria izan behar dela, eta kontuan izanda, era berean, horien jarduna eraginkortasunean eta herritarrekiko zerbitzuan oinarritu behar dela, egokituz jo dute bi aldeek informazio lagapen hori arautzea. Ildo horretatik, zerga informazioa, ahal dela, bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliz emango da, eta lagapen hori egingo da administrazioak dituen bere datu pertsonalei dagokienez zergapekoari aitortzen zaizkion eskubide eta bermeak babestuz.

VI.- Horrenbestez, bi aldeek ados jarri dira lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko, jarraian aipatu klausulekin:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren (informazio-emailea) eta Lizartzako Udalaren (informazio-hartzailea) arteko lankidetzaz arautzea, zerga administrazio jardunean informazio-emaileak eskuratutako zerga informazioan sar dadin informazio-hartzailea, bereak dituen eginkizunetarako behar duen heinean.

Horrenbestez, zerga informazioa eskuratu edo ematerakoan indarrean den araudia, hitzarmen honen azalpenean aipatutakoa, erabat errespetatu beharko da eta informazioaren subjektu den pertsonaren eskubideak zaindu beharko dira.

BIGARRENA.- Zerga informazioa ematearen helburua

Informazio-hartzaileak unean-unean dituen eginkizunei lotutako beharretan oinarrituko da beti zerga informazioa ematea. Aina, aplikatu beharreko araudiak hala galdatzen duenean, eman beharreko datuen zergapeko titularraren berariazko baimena izan beharko du alde zurretik.

Zerga informazioa zertarako nahi den dagokion eskaeran zehaztu behar da, eta era berean, lagapena baimentzeko organo eskudunak hartzen duen erabakian ere jaso behar da.

HIRUGARRENA.- Informazio lagapenaren edukia, modua eta aldizkakotasuna

- 1.- Informazio-hartzaileari egin beharreko informazio lagapen mota oro babesten du hitzarmen honek, hitzarmenean ezarritako baldintza, klausula eta printzipio guztiak betetzen dituen neurrian.
- 2.- Espediente zehatz batez soruttako beharrei erantzuteko egin beharreko informazio lagapena denean, eta hala delako, luzerako balioko duen baimen orokor batekin jarraipena ematea merezi ez duena, informa-emaileak emango dion ereduaren arabera egin beharko du hartzaileak bere eskaera, eta gaiaren arabera dagokion zerbitzuak eskatutako informazioa bidaliko dio, bidali ere, hartzailearekin bat egoki iritzitako bidetik.

Eskaera egiten duenean informazio hori lortzeko sistema estandarizaturik bada, honi erabiltzera behartuko zaio hartzaileari, 3. puntuan arautzen den lagapen mota moduan bideratzearen bete beharreko baldintzak betez, hala badagokio.

Eskaera puntual eta askotariko horiek ahalik eta bizkorren bideratzearen, adostu ahal izango da dauden bide telematikoak erbiliz, beti ere alde zuzenetik beren identitatea frogatuta, informazioa eskatzeaz arduraturik diren pertsonak izenda ditzala hartzaileak. Aukera hau eginez gero, dagokion eranskinean jasoko da, hurrengo puntuan ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honen abesean denboran mugatuak diren informazio lagapenak ere adostu ahal izango dira. Lagapen horiek honela formalizatuko dira: informazio-emaileak emango dion ereduaren arabera eskatuko du hartzaileak eta utzi beharreko datuen arabera eskuduna den organoak aldi baterako baimena emanaz erabakia hartuko du.

- 3.- Bere xedeagatik, edukiagatik eta eragindako pertsonengatik (beste ezaugarri batzuen artean) tipologia jakin bati lotu dakioken lagapena denean, eta jarraipena ematea egoki irizten denean, aldizka egiten delako edota lagapen horrek segidan erabil daitezkeen programa edo aplikazioetan sartzeko baimena galdatzen dutelako, lagapen motatzat joko da hitzarmen honen ondorioetarako eta, horrenbestez, hitzarmen honen eranskin gisa

jasoko da, bere edukiaren zati izango da eta bertan araututakoaren pean geldituko da.

Eranskin bakoitzak dokumentazio hau izango du:

- Informazio-hartzailearen organo eskudunak egindako eskaera arrazoitua. Eskaera hori, ahal den neurrian 4. puntuari jasotako edukiari egokituko zaio.
- Eskaera horren aurrean Fiskaliterako eta Finantzarako Departamentuaren barruan eman beharreko datuen arabera eskuduna den organoak hartutako ebazpena.

Dena den, hitzarmen sinatzeko unean horri erantsita datozen lagapenak hitzarmenaren zati izango dira hori sinatu izanagatik, goian aipatu eskaera eta ebazpenaren beharrik gabe.

- 4.- Informazio emateak jarraitu beharreko printzipioen barruan (laugarren klausulan jasotzen dira), lagapen mota bakoitzari dagokionez zera zehaztu eta arautu behar da: lagapenaren helburua, lagapena eta informazio-hartzailearen eskumena oinarritzeko araudia, interesdunaren baimena eskatzen denala ez, zerpekoei buruz emango diren datuak, lagapen sistema eta horretarako erabiliko diren baliabide tekniko eta materiala, aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsona kopurua, emandako datuak hirugarrenei lagatzea aurreikusten den ala ez, informazioan sartzeko baimendutako pertsonak, erabiltzaileen kudeaketaz eta utzitako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa, zuzenbide gaietarako, informatika gaietarako nahiz beste gai material batzuetarako solaskideak, eta oro har, egokitutako jotako best edozein xehetasun.
- 5.- Dagoeneko hitzarmenaren zati den lagapen bati dagokionez zerbait aldatzea proposatzen denean, lagapen hori arautzenden eranskina aldatu edo ordeztu ahal izango da, Fiskaliterako eta Finantzarako Departamentuko organo eskudunak hartu ebazpen berria medio, hartu ere

informazio-hartzaileak aldez aurretik hala eskatu diolako (eskaera arrazoitu egin behar du).

- 6.- Ahal den neurrian prozesu informatiko edo telematikoetan oinarritutako lagapen sistema erabiliko dira, hala nola, zerbitzari seguruan jarritako postontzia, Internet bidez zerga datuei buruzko frogagiriak lortzeko zerbitzu a,euskarri ezberdinetan bidalitako fitxategiak, web zerbitzuak eta, unean-unean egokiak irizten diren gainerakoak. Dena den, erabiltzen diren lagapen sistemek datu pertsonalak babesteko araudiak galdatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun bermeak bete behar dituzte.
- 7.- Aukeratzen den lagapen sistema hauen baitan egongo da: eskatzen den informazioaren bolumenaren eta edukiaren baitan eta eskaeren aldizkakotasunaren baitan.

LAUGARRENA.- Aplikatu beharreko printzipioak

Ondoko printzipio eta arauak izan behar ditu kontuan hitzarmen honen babespean egindako informazio lagapen orok:

- 1.- Emandako datuak hartzailearen funtzio eta eskumenetara egokitzea.
- 2.- Informazioa garrantzitsua eta baliagarria gertzea bete nahi diren helburuak lortzeko.
- 3.- Emandako datuen eta lortu nahi diren helburuen artean proportzionaltasuna egotea.
- 4.- Datuak bidaltzeko eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.
- 5.- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.

- 6.- Zorrotz lotzea datuen eskaera justifikatu eta arrazoitzen duten helburuei, zerga informazioa interesdunaren edo afektatuaren kalterako beste inoiz erabili gabe.
- 7.- Datuak transferiezinak izatea, hau da, hartzaileak beste inori ezin uztea, eraginako pertsonak edo legeak hala baimendu ezean.
- 8.- Informazio-hartzaileari datuak geroago tratatzeko debekua ezartzea, eraginako pertsonak edo legeak hala baimendu ezean.

Edonola ere, aplikatu beharreko araudiak hala galdatzen duenean, bere zerga datuetan sartzeko zergapekoaren baimena lortu beharko du aurretik informazio-hartzaileak. Lortutako baimena horren konstantzia dagokion espedientean jaso beharko da.

BOSGARRENA.- Zerga informazioan sartzearen kontrola eta segurtasuna

- 1.- Zerga informazioan sartzearen kontrola eta segurtasuna ondoko arau hauen pean dago: datu pertsonalak babesteko lege organikoa, datu pertsonalak babesteko lege organikoa, datu pertsonalak dituzten fitxategien segurtasun neurriei buruzko garapeneko araudia, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako segurtasun agiriak.
- 2.- Informazio jakin bat emateko eskatzen duenean, informazio-hartzaileak informazio-emaileari adieraziko dio zein izango den erabiltzaileen kudeaketaz eta sarreren kontrolaz nahiz segurtasunaz arduratuko den organoa. Organo horri funtzio hauek dagozkion, besteak beste:
 - a) Informazio lagapen hri lotutako eskaerak bideratzea.
 - b) Lagatako informazioa erabiliko duten pertsonen altak eta bajak eskatzea.
 - c) Lagatako informazioa isilpean gordetzen dal, eta isilpen edukitzeko beharrezko neurriak hartzen direla ziurtatzea.

- d) Baimendutako erabiltzaileek beren baimena eta horri esker lortzen duten informazioa egoki erabiltzen dutela ziurtatzea, eta interesdunaren baimena ezinbestekoa denean, bere zerga informazioan sartu aurretik aipatu baimena eskuratu dela ziurtatzea.
- e) Oro har, informazio-hartzailea den Administrazio Publikoaren eremuan hitzarmen hau aplikatzen dela egiaztatu eta zaintzea, eta bere klausula guztiak nahiz datu pertsonalak babesteko gainerako arauak betetzen direla ere bai, behar izanez gero aplika eta bete dadin premiatuz. Horrenbestez, gorabehera edo irregulartasunen baten berri duenean informazio-emaileari jakinaraziko dio.

3.- Informazio-emaileak alor hautan proposatzen dizkion segurtasun neurriak ezarriko ditu informazio-hartzaileak:

- a) Erabiltzaileen kudeaketa.
- b) Erabiltzaileen kudeaketa dokumentatzeko arauak.
- c) Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren zerga informazioan erabiltzaileen sarreraren aldizkako kontrola, arrazoiak azalduta.
- d) Informazio-emaileak egoki iritzitako beste edozein.

4.- Utzitako informazioa behar bezala lortu eta erabili duela eta aplikaziozko araudiaren aldintzak edota hitzarmenean ezarritakoak bete dituela egiaztatze aldera, informazio emaileak premiatu hal izango dio hartzaileari dagozkion egiaztapen jarduketak egin ditzan, ezarritako maiztasunarekin eta baliabideekin. Halaber, hartzaileak onartzen ditu hori guztia egiaztatzeko informazio-emaileak berak egindako jarduketak.

5.- Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute elkarri jakinarazteko informazio lagapenean gertatzen diren gorabehera guztiak, emandako edoeman beharreko datuen kontrolari, segurtasunari, konfidentziasunari eta osotasunari dagokienez.

SEIGARRENA.- Datuak isilpena gordetzako obligazioa

- 1.- Informazio-hartzailearne menpeko agintari, funtzionario edo langileak behartuta daude, hitzarmen honen babesean zerga datuen berri duten neurrian, datu horiei buruz isiltasunik handiena gordetzera. Horrenbestez, informazio-hartzaileak agintzen du, bere menpeko agintari, funtzionario edo langile edonork betebehar berezi hori urratu duela jakiten badu, dagozkion diziiplina neurriak hartuko dituela.
- 2.- Informazio hori behar ez bezala erabili edo lortzeak, edota, oro har, isilpean gordetzeko obligazioa urratzeak dakartzan erantzunkizun penal, administratibo eta zibilen kaltetan gabe, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentizari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sorutakoari) dagozkion funtzioen kaltetan gabe, informazio-emaileak datuetan sartzea eten edo mugatu ahal izango dio informazio-hartzaileari, baldin eta datuen erabileran edo kontrolean gorabeherak edo irregulartasunak atzematen dituenean, eta oro har, hitzarmen honetan jasotako printzipio, arau eta bermeak betetzen ez direnean.
- 3.- Zehazki, zerga informazioa lortzeko informazio-hartzailearen esku jartzen diren autentikazio mekanismoak (erabiltzaile kodeak eta pasahitzak) baimendu bakoitzarenak eta eskualdaezinak dira. Horrenbestez, erabiltzaile bakoitza bere kodearen eta pasahitzaren erantzulea izango da, hots, horien erabileraren, konfidentzialtasunaren eta zaintzaren erantzule.

ZAZPIGARRENA.- Lagatako datuen izera

Emandako datuak zergapekoek eta informazioa ematera behartuta dauden gainerakoek aitortu dituztenak dira. Oro har, ez dute inolako egiaztatzerik izan automatizatu aurretik. Dena den, egiaztatutakoak emango dira, jada egiaztatuak izan badira.

Fiskaliterara eta Finantzetarako Departamentuak zehaztu edo argitu ahal izango ditu datuen izaera eta edukia.

ZORTZIGARRENA.- Informazioa ematearen ondorioak

Hitzarmen honek babesten duen informazio lagapen bakoitzaren ondorioak izango dira, soil-soilik- lagapen hori baimentzeko kontuan hartutako helburu eta xedeetatik, dagokion eranskinean jasotzen direnetatik, ertorritakoak.

Hortaz, ez du inolako eskubiderik edo eskubide espektatibarik sortuko emandako informazioak eraginda gertatzen diren interesdunen alde, eta ez du etengo informazioa lortzeko beharra ekarri duten prozeduretan egon daitezkeen eskubide edo obligazioen preskripzioa. Era berean, ematen den informazioak ez du eraginik izango zerga alorreko egiaztapen edo ikerketa jarduketak egitek edo emandako datuak aldatzeak ekar dezakeen emaitzan.

BEDERATZIGARRENA.- Informazioa ohiko bideetatik bidaltzea edota herritarrak berak aurkeztea ez galdatzeko konpromisoa

1.- Bere eginkizunetarako beharrezkoa duen zerga informazioa eskuratu ahal duen neurrian, sinatutako hitzarmenean jada jaso diren bide formalizatuak erabiliz, edota badintza jakin batzuk betez, hala balegokio, Administrazio Publikoari eskainitako beste sistema batzuk erabiliz nahize ta bi aldeen artean formalizatu gabeak izan, informazio-hartzaileak ez dio eskatuko Zerga Administrazioari informazio hori ohiko bideetatik bidaltzeko.

Hala egiten badu, eskaera ukatu egingo zaio.

2.- Halaber, informazio-hartzaileak ez die eskatuko interesdunei Zerga Administrazioak egin beharreko ziurtagiriak edo antzeko agiriak banan-banan aurkez ditzaten, ezta beren zerga aitortpenen originala, kopia edo ziurtagiria, edota informazio-emaileak daukan beste edozein zerga informazio ere; baizik eta konpromisoa hartzen du informazio hori zuzenean emaileari eskatzeko, hitzarmen honen hirugarren klausulan ezarritakoari jarraiki. Horrenbestez, bideratzen dituen administrazio prozeduretan zerga informazioa behar badu, dagozkin neurriak hartuko ditu konpromiso hori betetzeko, horien artean,

araudiak galdatzen duenean interesdunaren berariazko baimena aldez aurretik lortzea eta ohiko ziurtagiria izan beharrean beste euskarri edo formatuetan ematen zaion informazioari ziurtagiriaren balio eta ondorio berak aitortzea.

HAMARGARRENA.- Jarraipen batzordea

Hitzarmen hau sinatzen dutenak, unean-unean ezarritako ordezkari sistema bitartez, jarraipen batzordean bilduko dira egoki irizitako maiztasun eta inguruabarrak ematen direnean. Batzordearen funtzioak honako hauek izango dira: hitzarmenaren aplikazioak eragiten dituen arazo ezberdinak aztertzea; informazio lagapen berriak sistematizatu eta automatizatzeko egokiera aztertzea, eta proposatutako eskaera nahiz bahrren arabera eta beharrezko baliabideen balorazioa eginda, kasu bakoitzarentzat egokiena den prozedura eta garapen informatikoa adostea.

HAMAIKAGARRENA.- Indarrean jartzea eta indarraldia

- 1.- Sinatzen den unean jarriko da indarrean hitzarmen hau eta mugagabeko indarraldia izango du bere babespean egin informazio lagapenei dagokienez, beti ere informazio-hartzaileak lagapen horietako bakoitza ahalbidetzen duten eskuduntzei eta funtzioei bere gain eusten badie, eta salbu bietako edozeinek haren amaieraren gaztigua egiten badu gutxienez hiru hilabete lehenago ondorioz gabe uzteko proposatzen den eguna baino.
- 2.- Orain arte informazio-emailearen eta hartzailearen arteko informazio lagapena arautu ahal izan duen beste edozein tresnaren lekua hartzen du hitzarmen honek, eta hark baimendutako lagapenak indarrean daudela eta hitzarmen honek babestu nahiz arautzen dituela ulertuko da, eranskin gisa jasoko direlarik.

Ados daudela adierazteko eta hitzartuakoa behar bezala jasotzeko, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- BIZTANLEEN ERROLDAN OFIZIOZKO BAJA

Jesusa Garaikoetxea Ormaetxea Andreak, bere etxean erroldatuta dagoen, Salustiana Lopez Orellana, Udal Biztanleen Erroldatik, helbide horretan, baja ematea eskatu du, bertan bizi ez delako.

Eskaeran agertzen dena, horrela dela egiaztatu ondoren, tokatzen den prozedimendua jarraituz, pertsona hori, Udal Biztanleen Erroldan Baja ematea, aho batez onartu da.

6.- ALKATETZA DEKRETUAK

OBRATAKO BAIMENAK

410/2006 Dekretua.- Lorenzo Zubeldia-Genara Beldarrain. Soroa-Eneako terraza zabaldu eta Soroa-enea eta Txominenearen artean atea zabaltzea.

438/2006 Dekretua.- Jose Antonio Garaikoetxea Esnaola. Basaitzene Baserrian teilatuari erreteila eman.

440/2006 Dekretua.- Francisco Etxeberria Berakoetxea. Lartzalde Auzoan, lolako bide partikularra egokitzea.

442/2006 Dekretua.- Andres Ferrero Rojo. Elbarrena Kalea, 14 – 1.an bainugela eta sukaldearen berrikuntza.

549/2006 Dekretua.- Idoia Obineta Olaetxea. Kale Nagusia, 17 – 1.an teilatuan luzeroa atera.

618/2006 Dekretua.- M^a Consuelo Karrera Mintegi, Mekolaldea, 1ean etxeko teilatua berritu, erreteila eman.

620/2006 Dekretua.- Jose Lasa Etxeberria. Elizondo Auzoa, 4 – 2.a ezk.an, etxeko bi gelatan egurrezko tarima aldatu.

448/2006 DEKRETUA.- OBREN ETENDURA. ARANTXA BALERDI

Kokalekua: UBERETA BASERRIA

Jabea: ARANTXA BALERDI URDAMPILLETA

Udaleko Arkitekto Teknikariak eginiko txostena dela eta, honako ERABAKI hau hartu du:

ARANTXA BALERDI URDAMPILLETA, Ermitalde Auzoa 1ean, UBERETA BASERRIAN, eta baimenik gabe, eginiko obrei buruz, Udaleko Zerbitzu Teknikoek egindako txostenak ikusi ondoren.

Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21. artikulua Ikusi ondoren eta baita ekainaren 23ko 2187/78 Errege-Dekretuz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamenduko 29. artikulua ere, eta aipatu Hirigintza-Disziplinaren Erregelamenduko 1. artikuluko zenbakian tipifikatuak eta Lizartzako Arau Subsidiarioetan oinarritutako eraikuntza obrak baimenik gabe egin eta egiten ari dela ENTZUN ONDOREN,

HONAKO HAU ERABAKI DU:

- 1.- Arantxa Balerdi Urdampilleta Andrea, Ermitalde Auzoa, 1eko, UBERETA BASERRIAN, eta Udal baimenik gabe egiten ari den lanen geldiarazpena agindu.
- 2.- 15 eguneko epea ematea, Arantxa Balerdi Urdampilleta Andreari, ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurrikusten dituen frogen proposamena

egiteko. Epea pasatakoan, Udalak dagokion zigor espedienteari hasiera emango dio, akordio honetan gertutako ekintzengatik.

- 3.- Hilabeteko epea ematea, egindako lanak legeztatzeke udalaren aurrean, jakineraziaz, antolakuntza aldaketa burutu ahal izateko tekniko eskumendun batek sinatutako egitasmoa beharko dela eta egindako obratako batzuk legeztagarriak ez direnez, lehengo izaerara aldatu beharko direla
- 4.- Interesatuei jakinaraztea azaroaren 26ko 30/1992 legeko 116. artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau administrazio bidean irmoa eta behin betikoa denez, haren aurka administrazio-auzi gaietako helegitea jar daiteke, beti ere bi hilabetetako epean, jakinerazpen honen egunetik hasita kontatzen, eta Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Dena den eta aipatutako artikulua arabera aukerako berraztertzeke errekurtsua jar daiteke, Alkatetza honen aurrean, jakinerazpen honen egunetik hasita, hilabete baten epean.

450/2006 DEKERETUA.- LORENZO ZUBELDIA-GENARA BELDARRAIN

Eskatzailea: LORENZO ZUBELDIA-GENARA BELDARRAIN

Eskaeraren sarrera data: 2006-07-19

Lanen helbidea: SOROA-ENEA ETXEA

Lanen deskripzioa: Soroa-Enea eraikineko fatxada proposamena

DEKRETUA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena: EZ EMATEA, arrazoi hauengatik:

- Aurkeztutako fatxadaren antolakuntza aztertu ondoren, egungo harearrizko puntu erdiko arkuordezkaten dela ikusten da, arku zabalago eta altuagoa eginez. Beste aldean ere arku berria egiten da gaur egun ate laukizuzena dagoen tokian.
- Eguno arkuari 4 pieza berri behar bazaizkio ere, egoera onean aurkitzen dela erizten da.
- Beste fatxadako bahoan ere arku egungoaren tankera berekoa izan beharko lukela erizten da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengo arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

452/2006 DEKRETUA.- JOSE M^a VALMASEDA MOCOROA

Eskatzailea: JOSE M^a VALMASEDA MOCOROA
Eskatzailearen sarrera data: 2006ko uztailak, 14 **Sarrera zenbakia:** 387-2006
Espediente zenbakia: 387-2006
Lanen helbidea: IRUNZUBI INDUSTRIALDEA, 6.
Lanen deskripzioa: OBRAK BURUTZEA

DEKRETUA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT:**

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena, EMATEA

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Behin lizentziari dagozkion tasak eta lizentzia indarrean sartzen denean, obrak hasi aurretik erreplanteo akta egingo da obra zuzendaritza, jabetza eta Udal Teknikaria ere bertan egon beharko direlarik. Akta honen xedea, eraikuntzaren kokaera eta neurriak egoki izango direla ziurtatzea da. Jadantik eraikita dagoenez, eraikitakoa konprobatu beharko da.
- 2.- Behin obra amaituta, Obra amaierako ziurtagiria ekarriko da Udalera.
- 3.- Obrak amaitutakoan, Lehen Erabilera tramitatu beharko da Udalean, eraikin berria erabili ahal izateko baimena eskuratzeko. Honetarako, Instalakuntza guztien Industriako Ikusonetsia eta altako boletinak, argazkiak eta Obra berriaren eskriturak ekarri beharko dira. (U-4 inprimakia ere beteta ekarriko da).
- 4.- IGOKA espedientea egin beharko da jarduera baimena eskuratzeko.
- 5.- Ez da lehen erabilera baimenik emango aktibitateari dagozkion tramiteak amaituta ez dauden bitartean.

Baldintza Orokorrak

- 1.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 2.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun-neurriak bete behar dira.

3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

4.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

530/2006 DEKRETUA – JESUS AGIRREZABALA GOIKOETXEA

Eskatzailea:	JESUS AGIRREZABALA GOIKOETXEA
Obra:	Txabolaren gaikaldean pendezeri talud bat atera eta 1,5 m. barnera zabaldu
Espediente Zkia:	416/2006

Alkatearen dekretua

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Araudi Aplikagarria:

Behin behinekoz onartutako Lizartzako Arau Subsidiarioetako Berrikuspen Dokumentuaren Araudi Orokorren 149. artikulua ondorengoa dio:

“Lurzoru hiritar ezinean, edozein motatako lurzorua egokitzea Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babeserako ardura duen erakundeak baimendu beharko du, Udalaren baimena eskuratu aurretik, Hondakin Geldoak eta Geldotutakoak kudeatzeari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren xedapenen arabera ...”

Soilik Udal baimena duten eraikuntza proiektuetan jasotako lurzoru egokitzeak baimenduko dira.

Hori kontuan harturik, espediente honetako eskatzaileari obra egiteko baimena **EZ EMATEA**, arrazoi hauengatik:

Behin behinekoz onartutako araudiarekin bat ez datorrelako batetik eta beharrezkoa ikusten ez delako bestetik. Horretaz gain, bertan dauden txabolak, behin behinekoz onartutako Araudiak, Aldundiaren Behin Betiko Onarpena jasotzen duenean, bertan jasotzen diren baldintzetara egokitu beharko dira.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

564/2006 DEKRETUA.- JOSE ARZADUN EGILUZ

Eskatzailea: JOSE ARZADUN EGILUZ

Eskaeraren sarrera data: 2006ko irailak 19 **Sarrera zenbakia:** 58 - 2005

Espediente zenbakia: 58 -2005

Lanen helbidea: LEZIALDEKO HAITZPARTETXE Lurretan

Lanen deskripzioa: HAITZPARTETXEⁿ BANAKAKO ETXEBIZITZA

DEKRETUA

Lizartzako Haizpartetxe Baserria Berreraikitzeo, Gipuzkoako Foru Aldundiako Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak eginiko aldeko txostena, eta Udaleko teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT:**

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena, **EMATEA**

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Etxeari lotuko zaizkion lurak "Indivisibilidad de Fincas" deritzan errejistroko agiriaren bitartez justifikatu beharko dira (30.000 m² gutxienez).
- 2.- Etxearen ingurunea nola geratuko den eta egin beharreko lur mugimenduak hobeto azalduko dira planu batetan.
- 3.- Obrak hasi aurretik erreplanteo akta egingo da obra zuzendaritza, jabetza eta Udal Teknikaria ere bertan egon beharko direlarik. Akta honen xedea, etxearen kokaera eta neurriak egoki izango direla ziurtatzea da.
- 4.- Eraikuntzako ordenantzen arabera egingo da obra.

5.- Lizartzako Laguntzazko Arau Subsidiarioetako agindu orokorrak betetzera, baldintzatzea.

Baldintza Bereziak

Etxeari kotxezko sarbidea egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentuak emandako baimena beharko da, Udal baimenaz gain.

Baldintza Orokorrak

- 1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe lluzatzen da.
- 2.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 3.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-neurriak bete behar dira.
- 4.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.
- 5.- Ebazpen hau luzatzeak, ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten aktibitate edo establezimenduen irekiera baimenik.
- 6.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 8 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

7.- Obrak bukatu ondoren eraikuntzaren lehen erabilpena aurkeztu behar da honako dokumentazioarekin:

- Obra amaieraren ziurtagiria, obraren benetazko kostoa adierazita.
- Fatxaden argazkia 13x18 neurrian atzetik arkitektoak sinatuta.
- Kokapen plano hiri zerbitzuen hartuneak adierazita.
- Obra berri aitortpenaren eskrituraren kopia xumea.
- Iberdrolaren Buletina.
- Hiri zergabilketan alta berria (U-4 orria).

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikularen eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

642/2006 DEKRETUA.- MANUEL BARRIOLA TOLOSA

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK 2006ko uztailaren 19an Manuel Barriola Tolosa jaunak, Udal honetan, aurkeztutako idatzia, non, Muñoa Baserria eraberritzeko

lanak burutzeko obra baimena eskatzen duen, Jesus Mari Irastorza arkitektu teknikoak egindako Oinarrizko Egitasmoa laguntzen duelarik.

IKUSIRIK Udal Teknikariak egindako Txostena.

JAKINIK Txosten teknikoaren arabera, burutu nahi diren lanek ez dutela eraikinaren hirigintza baldintzetan eragin nagusirik, eta funtsean, egun eraikinak duen eranskin bat kendu, egurrezko tarteko solairua hormigoizko forjatu baten bidez ordezkatu, eta lehen solairuan, edo teilatupean gela bakarreko bizitza bat antolatzea direla

JAKINIK Esandako lan horiek, indarrean dagoen araudia betetzeko, Txosten Teknikoan dauden baldintzak bete behar dituztela, hau da, Gutxienezko bizigarritasun baldintzen betekizunari dagokionean, Logelak gutxienez 10 m² izan behar ditu eta beraz, beharrezkoak diren zuzenketak burutu beharko dira. Era berean Arau Subsidiarioteko berrikusketak Dokumentuarena 78. artikuluan jasotzen diren neurriak bete beharko dira (sukaldean 2,20 m-ko zirkunferentzia, Logelan 2,5 m-ko zirkunferentzia, Egongelan 3m-ko zirkunferentzia ...); Arropak esekitzeko eta konposaketa hobeto zehaztu beharko da; Fatxadaren izaera eta konposaketa hobeto zehaztu beharko da; Bidearen egokitasuna hobeto azaldu eta zehaztu beharko da, batez ere eraikina Goltzur zelaiko paisaiaren babeserako eremua kokatzen delako.

JAKINIK Obra baimena eman aurretik, eta eraikitzen hasi aurretik, exekuzio egitasmoa aurkeztu beharko du, Barriola jaunak, goiko ataleko baldintzak kontutan hartuta.

AINTZAT HARTURIK Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22,1 q) artikuluan jasotakoa.

HAU ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Manuel BARRIOLA TOLSA jaunak eskatutako obra lizentzia eman aurretik, Exekuzio Egitasmoa aurkeztu beharko du, hurrengo baldintzak betetzen dituelarik:

1. Gutxienezko bizigarritasun balditzen betekizunari dagokionean, Logelak gutxienez 10 m² izan behar ditu eta beraz, beharrezkoak diren zuzenketak burutu beharko dira. Era berean Arau Subsidiariotako berrikusketa Dokumentuarena 78. artikuluan jasotzen diren neurriak bete beharko dira (sukaldean 2,20 m-ko zirkunferentzia, Logelan 2,5 metroko zirkunferentzia, Egongelan 3m-ko zirkunferentzia ...).
2. Arropak esekitzeko eta konposaketa zehaztu beharko du.
3. Fatxadaren izaera eta konposaketa hobeto zehaztu beharko du.
4. Bidearen egokitasuna hobeto azaldu eta zehaztu beharko da, batez ere eraikina Goltzur zelaiko paisaiaren babeserako eremua kokatzen delako.

Bigarrena: Agindu hau interesdunari jakinaraztea eta berari aditzera ematea beronen aurka berraztertzeke errekurtsioa jar daitekeela jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Donostiako Administrazio-azietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean.

491/2006 DEKRETUA – JUAN CARMELO GOIKOETXEA – SEGREGAZIO BAIMENA

JUAN CARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA Jaunak, Lizartzako Arostegi Baserrian helbideratua, 2006ko martxoaren 29an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, bere jabetzakoa den, lur zati honetatik:

1.- “Terreno sembradio denominado Celaya-mendibecos en Lizartza, que linda Norte y Oeste, con el río Araiz o Araxes; Este, carretera de Navarra y Sur, propiedades de la casería Venta Berri. Tiene treinta y nueve áreas y cincuenta y seis centiáreas de superficie (3.956 m²). Inscrita: Tomo 1.242, Libro 22, Folio 160, Finca 903-1-N, Inscripción 4^a. Se corresponde con la parcela nº 541 del Polígono nº 1 de Lizartza según el catastro”

128 m² lur zatia segregatu, ondoren, Juan San Sebastian Murua-ri saltzeko, honek bere jabetzari lotu ahal izateko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikulua gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da, baldintza honekin:

JUAN SAN SEBASTIAN MURUA Jaunak, lur zati hori bere jabetzari lotu beharko dio.

646/2006 DEKRETUA.- JOSE ARZADUN EGILUZ – SEGREGAZIO BAIMENA

JOSE ARZADUN EGILUZ Jaunak, Lizartzako Istileta Bekoa Baserrian helbideratua, 2006ko azaroaren 3an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, bere jabetzakoa den, lur zati hau:

1.- La heredad de EZKIOGA-ARTETXE ALDEA, que contiene catorce áreas y veinticinco centiáreas y linda: Norte y Sur, con terrenos del caserío Aizpea; Este, con la carretera para Orexa; y Oeste, con camino que le separa del terreno Ezkioga-Artetxe Aldea del lote número dos o caserío Eztilleta-Gonea. Polígono 3 – Parcela 94 b).

Beren jabetzako lurretatik banandu, ondoren, CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA Jaunarekin permuta burutu ahal izateko.

